

AUTOENPLEGUA


Urola Kostako Udal Elkarteak

“LAN bila nabil ...

...aurkitu dut NIRE ENPRESA,

... AUTOENPLEGUA

Etorkizunean, baina laster.....



Gure protagonista ZU zara, ikasten eta prestatzen ari den gaztea, lan esperientziarik ez duena eta etorkizunean lan bila arituko dena



Lan bila hasi behar dut.



Ea nork hartzen nauen!

Lehendabizi amets egingo duzu zuretzat nahi zenukeen lanpostuarekin,

“Administrazioko edo enpresa handi bateko lanpostua.....”,


“.....soldata ona , ordutegi ona, etxetik hurbil”,

“.....azken batean, lanpostu on bat nahi duzu (gutxienez izan dezala harremana ikasi duzunarekin).....”

Eta hori lortzeko jo eta ke hasiko zara...

Curriculum vitae-a prestatu, aurkezpen gutunak prestatu...


Eta bila hasiko zara: egunkarietako iragarkiak, INEM, LANGAI, harreman pertsonalak, internet, eskualdeko enpresak eta abar.



**Eta bide horri jarraituko diozu...
Baina, askotan ez duzu jakingo aurrera, atzera edo nora
zoazen.**



**Curriculumak bidali eta bidali,
gehienetan erantzunik jaso gabe,**
.....



**Zortea baldin baduzu deitu eta “lehen
hautaketa” gainditu duzula esango dizute. Eta
azterketa eta frogak egin behar: elkarrizketak,
test psikoteknikoak, lanbidearekin
zerikusia duten probak,**

**Bada beti norbait hobeto prestatuta dagoena
edo esperientzia gehiago duena!**

**Denbora aurrera, euro mordoa gastatu
(fotokopiak, zigiluak, gutunazalak, joan-
etorriak...), eta, batez ere, gogo eta ekimena
bidean zehar galdu.**

ring, ring!

“Zu izango zarela
uste dut”


Zortea izan duzu,

**HAUTATU EGIN
ZAITUGU**



**Orain bai!
Eros
ditzaket...**

**Eta kontratua
sinatzera zoazela
ohartu zara...**



**Administrazioan edo enpresa handi batean
lan egitea... JAI DUZU!**

**10 kontratutatik 8 enpresa txikiek egiten
dituzte.**

Soldata ona, ordutegi ona... JAI DUZU!

**10 kontratutatik 6 iraupen mugatukoak dira
(horietatik 4, hilabete bat baino iraupen
laburragokoak), eta
beste 2, lanaldi partzialekoak.**

Lanpostu ona... JAI DUZU!

**10 kontratutatik 5 honako lanpostuak dira
saltzaile-komertzialak, dendako
saltzaileak, ostalaritzako zerbitzariak,
segurtasun zerbitzuetako lanpostuak,
garbitasun industrialeko lanpostuak eta
abar.**

**Eta, gainera, gogoan hartu, denetarik
egiten (balioanitza), egunero gauza berria
ikasten, taldean lan egiten eta erabakiak
hartzen jakin behar duzu.**

Baina ez etsi, ez jarri buru makur, izan ere egiaz zortea izan duzu (zu bezala dabilzan 10etik 8 gazte)

6 hilabete behar izaten dituzte lana aurkitzeko). Zu horietako bat baizik ez zara.

Beraz, egin iezaziozu zure buruari galdera hau:

Hobeto joka ote nezakeen? Aurki ote nezakeen hau baino lanpostu hobea?

Zertan huts egin dut? Zer egin dut oker?



Ea nork kontratatzen nauen!

Lan bila hasi behar dut.

Lehendabizi amets egingo duzu zuretzat nahi zenukeen lanpostuarekin,

“ Administrazioko lanpostua

“ Soldata ona, ordutegi ona, etxetik hurbil.....

Eta jo eta ke hasiko zara,

Curriculum vitae mordo bat prestatu.....

Eta egunkarietako iragarkietan bila hasi.....



1. okerra




2. okerra



3. okerra




4. okerra



Eman dezagun *BESTE AUKERA BAT DUZULA*

HAS GAITEZEN BERRIRO, ea galdu gabe ibiltzen garen!





Lan bila hasi behar dut. Ea nork kontratatzen nauen!

2 bide= AUTOENPLEGUA ETA BESTEREN KONTURA

metsetako lanpostua,

..... Administrazioko lanpostua

.....soldata ona, ordutegi ona, etxetik hurbil.....

ERREALITATEA ezagutu = zein enpresek hartzen dituzte langileak, zer lanpostu betetzeko eta zein baldintzekin

curriculum mordoa prestatu

1. EZAGUTU ZURE BURUA = zure erradiografia eta lan helburua

2. Prestatu zure buruaren AURKEZPENA =oinarrizko curriculum, lan eskaintza bakoitzari egokitzeko modukoa.

Eta egunkarietako iragarkietan bila hasi.....

ENPLEGUA ERA AKTIBOAN BILATU: enpresen zerrenda


LEHENDABIZI PENTSATU, GERO EKIN!



***Hitz egin dezagun berriz AUTOENPLEGUAZ,
hori baita gure protagonista***

Egin honako galdera zure buruari:

***Zergatik ez duzu hartzen AUTOENPLEGUA
aukera gisa?***



***Zer datorkizu gogora autoenplegua esatearekin batera?
Zerk eginarazten dizu atzera? Zerk ematen beldurra?***

AUTOENPLEGUA

ABANTAILAK

- Autonomia
- Independentzia
- Norbere asebetetzea
- Zurea denaren alde borroka egitea
- Diru gehiago irabazteko aukera
- Besteri lana ematea

DESABANTAILAK

- Ahalegin eta neke gehiago
- Familia eta gizarte bizitzaren zati bati uko egitea
- Arrisku ekonomikoa
- Ziurgabetasuna

“ NIK EZIN DUT, autoenplegua ez da niretzat”



Pertsona guztiak gara izatez ekintzaile

ekintzaile = borrokalari

Ekintzaile izaten ikasi egiten da, ez dago gene berezirik

***Enplegua (besteren/norbere kontura) =
pertsona eta gizarte gaitasunak + ezagupenak***

SUSTATZAILEAREN EZAUGARRI PERTSONALAK

- ARRISKATZEKO GAITASUNA
- ANTOLATZEKO ETA ZUZENTZEKO GAITASUNA
- IRUDIMENA ETA BERRITZEKO AHALMENA
- EGOKITZEKO AHALMENA
- GIZARTE TREBETASUNAK
- ERABAKIAK HARTZEKO ERRAZTASUNA
- BEHATZEKO ETA AURREIKUSTEKO GAITASUNA
- ERANTZUKIZUNA HARTZEKO GAITASUNA
- BERE BURUAN KONFIANTZA
- SAIATUA IZATEA

“Nik ez dut sormenik. Zer egingo dut? NON AURKI DEZAKET NEGOZIO IDEA ON BAT?”

Urola Kostako ekintzaile eta sustatzaileen profila:

**%70 gazteak dira (35 urte baino gutxiagokoak),
gutxienez 5 urteko lan esperientzia dute,
negozio ideak sortu dituzte ezagutzen duten merkatua behatu eta
aztertuta.**



Hara! Estatistika horien zakuan zaude (adinagatik bai behintzat).

**Idea on bat izateko erarik onena da idea pila bat izatea.
(Linus Pauling, Kimikako Nobel saria)**



Sormena = Beha egon / Adi egon

***Hona hemen formula aplikatzeko ariketa praktiko bat:
sormena = beha egon***

Inguruneari erreparatu eta beha egon



Zure inguruari erreparatu eta beha egon

Gizarte aldaketan ondorioak,

Aldaketak:


**Biztanleria zahartzen eta feminizatzen ari da,
Emakumea lan munduan sartzen ari da,
Familia nukleoa murrizten ari da,
Lan orduak murrizten ari dira,
Teknologia berrikuntzak**

- ▶▶ **Konponketak eta mantentze lanak**
- ▶▶ **Etxeko garbitasuna**
- ▶▶ **Pertsona eta gaien garraioa**
- ▶▶ **Bulego tramiteetan laguntzea**
- ▶▶ **Etxez etxeko banaketa**
- ▶▶ **Etxe aldaketak edo mudantzak**
- ▶▶ **Erosketekin lagundu**
- ▶▶ **Adinekoak zaindu eta lagundu**


**Ondorioak eta beste behar batzuk:
Pertsona eta gauzei arreta (etxea);
adinekoekin,
aisiarekin eta denbora librearekin
zerikusia duten beharrak.**



Pertsonen eskaintzeko zerbitzuak




“Ez dakit zer egin enpresa bat martxan jartzeko. Ez dakit nola kudeatu... Nire ustez, unibertsitate ikasketak behar dira enpresa bat sortu eta zuzentzeko”.



**Eta lege zaharrearan autonomo dabilena?
Gure betiko autonomia?**

**Informazioa jaso eta zure burua prestatzeko,
eskura dituzu autoenpleguari laguntzeko hainbat zerbitzu.**

“Eta tramiteak eta paperak? Enpresa bat sortzeko hainbat paper bete eta bideratu behar dira administrazioetan (Erregistroa dela, Ogasuna dela, Gizarte Segurantza dela...). Hori da saltsa hori!



Hori da zure “arazorik” txikiena, izan ere hainbat zerbitzu publiko dituzu esku-eskura, zure enpresa egitasmoa martxan jartzeko bidean aholkularitza eta laguntza emango dizutenak.

**Enpresagune
Urola Kostako Udal Elkartea,
Zuberoa 20-22 behea, Zarautz
943-894184
943-021550**

■ **SORTUTAKO ENPRESAK:** 49

–EMAKUMEAK: 51%

–GIZONAK: 49%

■ **EDAD:**

■ <25 URTE: 15%

■ 25-35 URTE: 55%

■ 35-45 URTE: 28%

■ >45 URTE: 2%

■ **KUALIFIKAZIOA:**

–IKASKETARIK GABE: 6%

–EGB/FP1: 30%

–BATXILERRA: 18%

–FP11: 13%

–DIPLOMATURA: 13%

–LIZENTZIATURA: 20%

■ **IHARDUERA:**

–PERTSONEI ZERBITZUAK: 24%

–ENPRESEI ZERBITZUAK: 23%

–MERKATARITZA: 13%

–INDUSTRIA: 10%

–ERAIKUNTZA: 10%

–HOSTELERITZA: 5%

–IKT: 5%

–BESTEAK: 10%